



21/2025 ALKATETZA EBAZPENA

Tolosaldea Garatzen SA elkarteari, 2024ko abenduaren 26ko Batzar Orokorrean onartutako 2025ko Gestio Planean aurre ikusitako ekintza, zerbitzu eta programak bideratzeko enkargua honako sailetan: Udala, Enpresa, Ekintzailtza, Enplegua, Turismoa, Migrazio eta Aniztasuna eta Kontsumitzaile Bulegoa.

I. Aurrekariak

1º) Udalak, 2022ko ekainaren 29an egindako Udal osoko bilkuran, Tolosaldea Garatzen SA merkatal enpresa Udalaren bitarteko propio izendatzea onartu zuen, Sektore Publikoko Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzak betez, izendapen-akordioarekin bat egiten duten eskualdeko beste udal batzuekin batera.

2º) Tolosaldea Garatzen SA merkataritza-elkartek, A-20500229 IFK, iraupen mugagabea, eta Tolosan Lehiberri zentroan 1 zenbakian du bere egoitza. 1994ko uztailaren 27an eratu zen Tolosan, Jose Manuel Domingo Serrano notarioak emandako eskritura publiko baten bidez; eskritura horrek 1.275 protokolo zenbakia du, eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago 1.488. liburukiko 166. folioan, SS-9710, orrialdea, 1go inskripzioan.

Merkataritza-sozietatearen Batzar Nagusiak 2022ko abenduaren 12an egindako ez-ohiko bilkuran aldatu zituen estatutuetakoko 3.bis Artikuluan ezarritakoaren arabera,

“TOLOSALDEA GARATZEN SA elkartea, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo udalerrien Bitarteko Propio edo/eta Zerbitzu Teknikoa da.

Hori dela eta udalerriek bitarteko propio duten sozietatearekin dituzten harremanek izaera instrumentala eta ez-kontratuakoa dute, eta Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen (9/2017 Legea) 32. artikuluan aurreikusten diren mandatuen bidez antolatu ahalko dira; horrenbestez, ondorio guztietarako, barne eta mendeko izaerakoak dira.

Botere adjudikatzaile horiek Sozietateari jardueraren bat egiteko aginduz egiten dioten jakinarazpena jarduera horri ekiteko agindua izango da; hala ere, 9/2017 Legearen 32.6.b) artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Emandako zerbitzuengatik konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: sozietateak eginiko mandatuen xede diren jardueretarako mandatura egiten duen botere adjudikatzaileak onetsitako tarifak, eta Estatuak erregelamenduz erabakitzen duen moduan. Horretarako, mandatuen xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzeko diren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, kostu hori txikiagoa denean azpikontrataturako jarduerari tarifak aplikatuz heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoiztutako unitateak egiteko benetako kostu guztiak jasotzeko moduan kalkulatu dira. Mandatuaren tarifak edo konpentsazioak mandatuko prestazioaren balioa estali beharko du, eta hura kalkulatzeko, zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak

izan beharko dira kontuan. Tarifek inolaz ere ez dituzte onura-marjinak izango, eta haietan likidazio partzialak egin ahalko dira ekitaldi bakoitzaren kontura, baina, halere, behin betiko likidazioa egingo da.

TOLOSALDEA GARATZEN SAK ezingo du parte hartu esandako Udal organoek deitutako enkante publikoetan, nahiz eta agindu ahalko dion enkantearen xede zen prestazioa emateko, lizitatzailerik aurkezten ez bada.

Urte anitzeko mandatuen kasuan, likidazioa egingo da aurrekontu-ekitaldi bakoitza ixtean, nahiz eta jarduketa amaitua aitortu eta egiaztatu egingo den legez ezarritako baldintzetan, eta dagokion dokumentua emango da, eta likidatu egingo da, gehienez hurrengo hiru hilaren barruan.”

3º) Udalak, Tolosaldeko eskualdeko udalekin batera, Tolosaldea Garatzen, S.A.ko 2025eko gestio plana bideratzeko hurrengo konpromisoak onartu zituen 2024ko abenduaren 26an Tolosako Lehiberri Zentroan ospatutako Batzar Orokorrean:

1.- Onartzea 2025ko Tolosaldea Garatzen, S.A.ko Gestio Plana egitasmoaren zehaztapenaren dokumentua.

2.- Baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak jartzea, Tolosaldea Garatzen, S.A.ko 2025eko Gestio Planeko jarduna garatu ahal izateko, berariazko aurrekontu-partida bat izendatuta eta hornituta.

Horretarako 2025eko Tolosaldea Garatzen, S.A.ko Gestio Planaren arabera Udal, Enpresa, Ekintzailtza, Enplegu, Turismo, Migrazio eta Aniztasun eta Kontsumitzaileak informatzeko alorretan garatuko diren jarduerak eta programak dinamizatu, diseinatu eta garatzeko zerbitzua arautzeko beharrezkoak diren ekintzak burutu behar dira.

II Zuzenbidezko Oinarriak

I.- Tolosaldea Garatzen SA, beraz, Tolosako Udaleko baliabide pertsonifikatua da, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, ezarritakoaren arabera.

Horregatik, jasotako agindua egikaritzeko egin behar dituen negozio juridiko guztiak SPKLren pean egongo dira dagozkion zehaztapenekin; lanak burutuko dituen entitatearen izaeraren, balio zenbatetsiaren eta motaren arabera. Norbere baliabidea botere esleitzailerik ez denean, SPKLren Hirugarren Liburuaren I. Tituluan dauden arauak aplikatuko zaizkio. Halaber, ez dago norbere baliabideei ezarritako % 50eko balio mugarik, Legeak salbuetsi egiten dituelako zuzenbide pribatuko elkarte bati aginduak ematen zaizkionean, beti ere titularitatea publikoa denean eta baita bere kapitala ere; hau da Tolosaldea Garatzen SA merkataritza-sozietatearen kasua.

II.- Tolosaldea Garatzen SAK bere estatutuetan jasotzen dituen funtzioen artean, orohar, gizarte xedea betetzeko beharrezkoak diren iharduera guztiak garatzea jasotzen da, horretarako eskaera egiten zaionean, Elkarrekin laguntza tekniko eskainiko die udalei, bere gizarte-xedearen barruko arazoetan.

Tolosaldea Garatzen, S.A.ko estatutuen arabera, bere gizarte xedea honakoa da: *“Tolosaldeko udalen biziberritze eta ekonomi garapenerako lagun lezaketan jarduera guztiak burutzea, enpresen eta enpleguaren sustapena barne, eta baita herrietako zerbitzu publikoen eskaintzarako elkarlana eta koordinazioa indartu eta sostengatzea ere”*

Udaleko Bitarteko Idazkariak aurretik lege-txostena eman du.

Azaldutako guztiagatik,



EBAZTEN DUT

LEHENGOA: Tolosaldea Garatzen SA elkarteari, 2024ko abenduaren 26ko Batzar Orokorrean onartutako 2025eko Gestio Planean aurre ikusitako ekintza, zerbitzu eta programak bideratzeko enkargua agintzea. Egikaritze hori datozen klausulek arautuko dute.

KLAUSULAK

Lehena. Enkarguaren xedea.

Agindu honen bidez, Udalak, Tolosaldea Garatzen SA merkataritza sozietateari eskatzen dio Tolosaldea Garatzen, S.A.ko 2025eko Gestio Planeko proiektu, programak eta zerbitzuak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko enkargua.

Enkarguaren helburua da Tolosaldea Garatzen, S.A.ko 2025eko Gestio Planeko proiektu, programak eta zerbitzuak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko bideratu beharreko kontratazioak egikaritzea.

Zerbitzuak zazpi atal edukiko ditu:

- Udal Saileko 2025 ekitaldirako egitasmoak
- Enpresa Saileko 2025 ekitaldirako egitasmoak
- Ekintzailtza Saileko 2025 ekitaldirako egitasmoak
- Enplegu Saileko 2025 ekitaldirako egitasmoak
- Turismo Saileko 2025 ekitaldirako egitasmoak
- Migrazio eta Aniztasun Saileko 2025 ekitaldirako egitasmoak
- Kontsumitzaile Bulegoko 2025 ekitaldirako egitasmoak

Zerbitzuak honela emango dira:

*a) Tolosaldea Garatzen erakundeak bere bitartekoen bidez, eta beharrezkoa den kasuetan, kanpo baliabideen kontratazio bidez emango dizkie zerbitzuak enkargua sinatu duten udalerrietako eragile eta herritarrei. Zerbitzu horiek enkargu-orri honi erantsi zaion **I. eranskinean** deskribatzen dira. Era berean, aipatutako zerbitzuen lizitaziorako oinarri izango den azterketa ekonomikoa **II. eranskin** gisa gehitu da.*

b) Tolosaldea Garatzen-ek bere baliabide propioekin kudeatuko du mandatu hau sinatu duten udalek egindako ekarpenen kobrantza, aurreko atalean aipatu diren zerbitzuengatik.

Bigarrena. Egikaritzearen baldintzak

Tolosaldea Garatzen SA elkarteko kontratazio-organismoek kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ezar ditzakete, betiere haien xedearekin lotuta badaude, SPKLren 145. artikuluan jasotako zentzuan, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira eta erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak badira.

Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez badira, zehapenak ezarriko dira edo baldintza hauek funtsezko kontratu betebehartzat hartuko dira SPKLren 211. artikulua f) letran aipatzen diren ondorioetarako.

Kontratua egikaritzean esku hartuko duten azpikontrastek ere kontratua egikaritzeko baldintza berezi horiek guztiak bete beharko dituzte. Kontratu hau egikaritzeko baldintza bereziak honakoak dira:

Hizkuntza baldintzak

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hori garatzen duten arauak erregulatua.

86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak, bere 18. artikuluan, euskararen erabilera normalizatzeko planetan bete beharrekoak azaltzen ditu, haien artean hurrengo hau: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen".

Herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, enpresa esleipendunak administrazio kontratugileak dauzkan hizkuntza arauen arabera jokatu du kontratupean dauzkan zeregin guztietan. Horrela, elkarren arteko harremanak, bai ahozkoak bai idatziak, administrazioak duen lan hizkuntzara egokituko dira.

Zehazki, herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituen enpresa esleipendunak baldintza linguistiko hauek bete beharko ditu:

Errotuluak, oharrak eta seinaleak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo/eta maiz erabiliak direnean edo/eta ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean. Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, beti ere Euskara zerbitzuarekin alde aurretik elebitasun formula adostuta.

Esleipendunek euskara edota ele biek erabiliko dituzte megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketetan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere. Ele bietako aukera egin behar izanez gero euskarari lehentasuna emanda, baina testua euskara hutsean idatziko da kasu hauetan: hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, esanahia argitzen duen piktograma batek lagundurik dagoenean, euskarazko hitzak ezagunak direnean (Udaltzaingoa, sarrera, irteera...) eta ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak edo/eta jasotzaileen berezitasunek hala eskatzen dutenean.

Kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden hirugarrenek kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak edo/eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean izan ezik, kasu hauetan euskaraz egingo baita. Ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz burutzeko herritarrek inolako oztoporik ez dutela izango bermatu beharko da, horretarako modurik eraginkorrena delarik kontratu-ematearen langile guztiak elebidunak izatea. Beraz, herritarrekin harreman zuzena izango duten langileak elebidunak izango dira halabeharrez eta helburu hori lortze aldera, udalean bertan lan egiteko bete beharko lituzketen baldintzak bermatu beharko dituzte hizkuntza eskakizunei dagokienean.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabiliko dira normalean: behar duen hizkuntza gaitasuna ziurtatzen duen agiria edota udaleko Euskara zerbitzuak jarritako euskara frogak gaintzea. Azken aukera hau ahalik eta gutxienetan erabiliko da, gaur egun hizkuntza agiriak izateko aukera ugari baitago.

Berriaz inolako aukerarik egin ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dizkien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak



edo/eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean izan ezik, kasu hauetan euskaraz egingo baita. Edozein dela kasua ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake euskara aukeratzeko eskubidea.

Administrazio kontratu-egilearekin kontratua gauzatzeko egiten diren harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea": a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontratua gauzatzeko ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta, b) komunikazio idatziak euskara hutsean egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne.

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz

Aipatutako baldintza guztiak funtsezko kontratu- betebeharrak dira.

Enpresa adjudikaziodunaren lan eskubideak eta betebeharrak

1.- Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan- arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak.

Kontratua indarrean den bitartean, kontratuaren hasierako plantillan aldaketak gertatzen badira (bai erretiro, heriotza, borondatezko baja, kaleratze, aldi baterako ezintasun, ezintasun iraunkor eta abarreatatik, bai zerbitzuaren beharreatatik), baja hori bete aurretik adjudikaziodunak Tolosaldea Garatzen SAri horren berri emango dio.

Adjudikaziodunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza Tolosaldea Garatzen SAk ez du inongo harreman juridikorik izango adjudikaziodunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere.

2.- Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatu zaien adierazi beharko dute lizitatzailerek, adjudikazioalortzen badute.

Halaber, behin kontratua adjudikatu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ematera behartuta egongo dira.

3.- Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzeko den denbora guztian, betiere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan.

Berdintasuna. Emakumeen etagizonen berdintasuna bermatzeko eskubide eta betebeharrak

1.- Enpresa adjudikaziodunak nahitaez beteko ditu honako arau hauek: 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriak; 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa;

2.- Zerbitzua garatuko duten talde lizitatzailerik pertsona guztiek emakumeenganako eta gizonenganako jarrera errespetagarria eta berdinzalea edukiko dute une oro, eta inoiz ez dute izango jarrera desatsegin, mingarri edo diskriminatzailearik, sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu- orientazioagatik.

Enpresa adjudikaziodunak komunikazio ez- sexista eta inklusiboa egingo du bere dokumentazioan, publizitatean, irudietan eta materialetan.

3.- Beste neurri batzuk hartzeari utzi gabe eta berdintasun arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki, kontratuaren adjudikaziodungisa izendatutako pertsona juridikoak, bere estatus juridikoa edozein izanda ere, derrigorrez bermatu beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta arreta berezia jarriko du soldata-diskriminazioan.

Bigarrena. Epea.

Enkargu honek, 2024ko abenduaren 26an ospatutako Batzar Orokorrean eskualdeko udalek onartutako 2025eko Gestio Planean oinarritua dagoenez, 2025eko urtarrilaren 1tik aurrerako ondorioak izango ditu, eta 2025eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Enkargu hau ezingo da luzatu.

Hirugarrena. Enkarguaren justifikazioa eta ordaintzeko era.

Udalak ordainduko ditu enkargu honek agindua jaso duen erakundeari eragin dizkion gastuak, bere partaidetzaren arabera. Guztizko kostua 595.433 eurokoa izango da, beraz Udalak Tolosaldea Garatzen, S.A.ko kapitalean duen parte hartzearen arabera gastua edukiko du guztizko kostu horretatik (ikus Gestio Planean Udalen ekarpenari dagokion eranskina). 2025ko udal aurrekontuan, dagokion aurrekontu aplikazioan jasota dago aipaturiko gastu horiei aurre egiteko zenbatekoa.

Era berean, aurrekontuen gaineko eskumena duen organoak konpromisoa hartu du etorkizunean beharrezkoak diren kredituak erreserbatzeko dagozkion ekitaldietako aurrekontuen barruan.

Tolosaldea Garatzen, S.A.k, dagozkion gastuen tarifak fakturatuko dizkio Udalari. Dokumentazio hori egiaztatu ondoren, Udalak, hilabete bateko epean ordainduko du faktura bakoitzari dagokion zenbatekoa:

- %50eko faktura otsailaren 28an. Ordainketa epea: martxoak 31
- %50eko faktura abuztuaren 31ean. Ordainketa epea: irailak 30

Proiektua bukatutakoan, aginduaren likidazioa egingo da, eta horretarako aurretik, Tolosaldea Garatzen SA elkarteak, enkargatutako jarduerak justifikatzeko memoria aurkeztu beharko du, bere Batzar Orokorrean onartu ondoren.

Laugarrena. Enkarguaren irismena eta izaera.

Enkargu hau Udalak bitarteko propio pertsonifikatu bati egindako enkargua da, baina ez da kontratutzat hartzen, eta sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzaren bertikaleko sisteman gauzatzen da, bitarteko pertsonifikatua erabiltzean datzana.

Tolosaldea Garatzen SA erakundeak autonomia osoz eta bere antolaketa-arauen arabera emango eta garatuko ditu enkargatutako zerbitzuak eta jarduera materialak, baina Udaleko arlo eskudunetatik datozen beharrezko jarraibide teknikoak errespetatuz, betiere gutxiengo esku-hartzearen printzipioaren eta besteren antolaketarekiko errespetuaren partizioaren barruan.

Bosgarrena. Enkarguaren suntsitzea.

Mandatu hau ezin izango da eten edo amaitu aurre ikusitako epea iritsi aurretik.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Seigarrena. Araubide juridikoa.

Berezko bitartekoari egindako enkargu honek SPKLren 32. artikuluan aurreikusitako izaera du, eta, beraz, artikulua horretan eta SPKLren gainerako artikuluetan adierazitakoaren arabera arautuko da, bitarteko propioei egindako enkarguei aplikatzekoa denean (44., 50. eta 63. artikulua).

Baliabide propio pertsonifikatuen araubide juridikoari buruzko SPKLren azken xedapenetatik laugarrenaren 3. apartatua adierazitakoaren arabera, lege horretan aurreikusten ez den kasuetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

Zazpigarrena. Eztabaiden ebazpena

Udalak nahitaez ebatziko ditu enkarguaren ondorioz sortzen diren interpretazio- eta betetze-arazoak, eta, era berean, egin beharreko jarduketak zehaztu edo aldatuko ditu, betiere haren xedearen funtza aldatzen ez bada.

Zortzigarrena. Enkarguaren publizitatea

Mandatu hau Udalaren Gardentasun Atarian argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) letran ezarritakoa betez.

Era berean, eta SPKLren 63.6 artikuluan adierazitakoaren arabera, zenbatekoa kontuan hartuta, Tolosaldea Garatzen, S.A.ko kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Tolosaldea Garatzen, S.A. merkataritza-sozietateari, Kontuhartzailetzari eta Idazkaritza Departamentuari.

Ikaztegieta, 2025eko urtarrilaren 22an.

Alba Garmendia Castaños
ALKATEA,

Nire aurrean,
Jose Mari Saiz Pagoaga
IDAZKARI-KONTU HARTZAILEA

GESTIO PLANA 2025

- **udal saila**
- **enpresa saila**
- **ekintzailetasun saila**
- **enplegu saila**
- **turismo saila**
- **migrazioa eta aniztasuna**
- **kontsumitzaile bulegoa**

- **eranskinak**



UDAL SAILA

UDAL KUDEAKETA ETA LANKIDETZA

Tolosaldeko udal kudeaketan sare lana egiten jarraitzen dugu Udal sailetik. Udal sailaren ardatz nagusi den zerbitzu partekatuen identifikazio, sustapen eta dinamizazio lan horretan, 2025 urteari begira lanpostu partekatuen prozesuetan akuilu lana egitea aurreikusten da, besteak beste.

Dagoeneko martxan dauden zerbitzu partekatuen inguruan, enkargu bitartez, tokiko garapen teknikarien zerbitzua eta Andragora Emakume Etxearen kontratazioaren jarraipena egingo da Udal Sailetik.

Aurten Trantsizio Energetikoaren eta Klima-aldaketaren Legea onartu da eta Tolosaldeko Energia Plana berraztertzen hasi gara egungo legedira egokitzeko eta datozen erronka berriei nola aurre egin modu partekatuan erabakitzeko. Tolosaldeko Energia Plana 04/2019 legeak udalei eskatzen dien bide-orria izango da Energia Plan berria eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren hitzarmenari esker eta beste finantzazio iturriak ere arakatzuz plana dinamizatu eta garatuko dugu: energia komunitateak, herritarrak, enpresak, etab.

Landa izaera duen eskualdea izanik, energiari erabat lotuta dagoen ildo, mugikortasuna, eskualdeko udalen agendan lehentasun bilakatuko du 2025ean. Tolosaldeko Garraio Zerbitzuaren kontzesioaren zain, horren osagarri diren beste bideak arakatuko dira Tolomendi landa garapeneko elkararekin elkarlanean.

Horretarako, ardatz hau hiru jarduera nagusitan banatzen da:

1. **Koordinazioa:**

Udal Saila udalen erreferentziatzko gune gisa berrestea eta udalen elkar trukaketa espazioak mantentzea, arlo desberdinetan bilguneak sustatuz.

- Aholkularitza: Udalen beharrak entzun, euren kontsultak erantzun, irtenbidea eman, beste eragileetara bideratu, proiektu interesgarriak ezagutzeko edota bideratzeko. Iaz udal gehientsuenekin egon ginen eta aurten ere udalekin elkarriketak egiten jarraituko dugu.
- Idazkarien Foroa: idazkariak asko estimatzen duten foroa berriz ere sistematizatu dugu eta foro horiei esker aurten lanpostu oposaketa prozesuetan inguruan hausnarketa egin eta dinamizazio lanarekin jarraituko dugu.
- Tolosaldeko Ingurumen Batzordea: urtean pare bat aldiz biltzen den plataforma egonkorra, ingurumen, energia eta garapen iraunkorraren inguruan udal mailan egiten diren ekintzak trukatzeko, eskualde mailan egiten diren jasangarritasun politikak zabaltzeko eta proiektu bateratuak identifikatu eta bultzatzeko.

2. **Formakuntza-Komunikazioa:**

Etengabeko formakuntza aldarrikatzen dugu, udal teknikari eta politikariak Udal Sailak aurrera eramaten dituen lan ildoan inguruko esperientzia berriak, EAE, Estatu edo Europako legeei begira egokitzapenari buruzko saioak edo euren lanarekin zerkusia duten prestaketa ikastaroak prestatu eta bideratuko ditugu atal honetan.

IVAP hitzarmena:

Udal teknikariei zuzendutako IVAPen formakuntza programa Lehiberri Zentroan eskainiko da beste urtebetez.

Ordezkarari politikoei zuzendutako formakuntza programa:

Udal politikariak (alkateak eta zinegotziak) tresna egokiez hornitu behar dira udal kudeaketa eraginkorra eta herritarren beharrei egokitu izan dadin. Testuinguru sozioekonomiko, ingurumen eta legalari buruzko programa diseinatuko dugu udal ordezkarientzat.

3. Zerbitzu partekatuak:

Udalek euren kasa eman ezin duten zerbitzuak zeintzuk diren ezagutu eta modu partekatuan eman ahal izateko irtenbideak bilatzen jarraitzen dugu Udal sailetik, benetan estimatzen duten zerbitzua baita. Eta indarrean dauden zerbitzu partekatuei eutsiko zaie, hala nola, tokiko garapen teknikarien zerbitzua eta hirugarren urtez, 24 udalen enkargu bidez, Andragora Emakumearen Etxearen zerbitzua. Bestalde, 2025 urterako, lehiaketa-oposaketa prozesuetan Udal Sailaren koordinazio lana eskatu dute udalek, zerbitzu partekatuetan Udal sailaren papera behin eta berriz hausnarketara ekarriz.

ESKUALDEKO ERRONKA BERRIAK

Udal Sailaren bigarren helburu estrategiko nagusia eskualde politika bateratuak sustatzea eta dinamizatzea izango litzateke, beti ikuspegi jasangarri batetik ikusita eta Tolosaldeko Plan Estrategikoaren aterkipean geratzen diren helburuei jarraiki:

1. Energia Estrategia

2025ean Tolosaldeko Energia Plan berritua jarriko da abian datozen urtetarako erronka berriak aurre egiteko. 04/2019 Jasangarritasun energetikoko Legea eta 01/2024 Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea dira eskualdeko planaren erreferentzia eta energia kultura berriaren sustapenean bereziki udalen baina baita eragile guztien akuilu lana egitea da helburu.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Energia Hitzarmena finantzabide nagusi izan arren, beste diru-iturriak ere arakatuko dira eskualdeko energia politikaren alde eta, besteak beste, honako lan-lerroak garatzeko: energia-komunitateak, eragile ekonomikoen artean energia eraginkortasunaren sustapena, herritarrenganako arreta zerbitzuaren diseinua, etab.

2. Mugikortasuna

2025an Tolosaldeko Autobus zerbitzuaren kontzesioa berritzea aurreikusten dugu eta 2024 urtean egindako aurre lanketarekin jarraitzea espero dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarraituko dugu kontzesioa eskualdearen beharretarako diseinatuta egotea bermatzeko. Hala eta guztiz ere, landa eremuko herritarren beharrak garraio publikoarekin bakarrik erantzun ezin direla kontziente izanik, Tolomendirekin batera 2024an abian jarritako landa eremuko mugikortasun diagnostikoarekin jarraituko dugu eta garraio publikoaren osagarri izan daitezken beste alternatibak aztertu eta garatu nahi ditugu, horretarako finantzabideak arakatzuz: auto partekatuen sistema eta komunitate energetikoetan mugikortasuna txertatzeko ereduak aztertuz, adibidez.

Bestalde, mugikortasun jasangarria industria guneeetan aztertzen ere jarriko gara. Apataerrekako industria gunean abiatu den auto partekatuaren azterketa beste industria gunetara zabaltzen saiatuko gara.

3. Hezkuntza-Eskola Agenda 2030

Aurten Eskola Agenda 2030 programari eutsi diote eskualdeko udalek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzaren babesik gabe eta eskualdeko 13 ikastetxe izango dira aurten, Tolosako ikastetxe guztiekin koordinatuta. 2024-2026 ikasturteetan zehar mugikortasuna izango da landuko den gaia.

4. Ekonomia zirkularra

Tolosaldeko eskoletako jangeletan elikadura soberakinak murrizteko proiektuarekin jarraituko dugu. Elikadura zirkularrean oinarritutako jangeletako elikadura soberakinen ikerketa egin ondoren, eskualdeko ikastetxeetako jangelekin proiektu pilotu bat jarri dugu martxan hondakin organikoaren kopurua gutxitzeko.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2022 eta 2023 urteetan 13 ikastetxek hartu dute parte proiektuan eta pisaketa errealak egin ondoren Tolosa, Alegia, Villabona eta Zizurkilgo ikastetxeetako soberakinak banaketa sistema batean erabiltzeko aukera dutela ikusi da. Urtearen amaieran sistema hori martxan jartzeko Eusko Jaurlaritzako Erika eta Osasun sailari kontrastatu eta onarpena jaso ondoren, 2024 urtean zehar proiektu pilotua jarri nahi izan da martxan, emaitzak ikusi eta etorkizunerako haziak erein. Baina dirulaguntzak luzatu egin dira eta Eusko Jaurlaritzaren onespena izan arren, zain gaude ebazpen ofiziala jasotzeko eta proiektuak aurrera egiteko.

ANDRAGORA, Tolosaldeko emakumeen etxea

Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen kudeaketarekin jarraituko dugu 2025ean. Azken urteetan eskualdean emandako eragile feministak eta ordezkari politikoak elkarnean landutako partaidetza prozesu baten ondorioz Tolosaldeko 24 herriek (Hernialde, Abaltzisketa, Belauntza eta Albiztur kanpo) Andragora Etxea martxan jartzea erabaki dute eta hitzarmen baten bitartez Tolosaldea Garatzen kudeaketaz arduratzea adostu da. Etxearen izena ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxea izango da, Tolosako Inpernu kaleko 5 eta 7ko lokaletan eta Emakumeen plazako lokalean jarriko da.

ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxeak, emakumeak elkartzeko, eztabaidatzeko, ikasteko eta ahalduzko gune segurua eta kolektiboa da, agenda feminista politikaren ardatz nagusian kokatu ahal izateko, feminismoaren helburu politikoak txertatuz, desberdintasunak eta izan ditzakeen intersekzioak kontuan hartuz, inplikaturako eragileekin gaur egungo agenda zabalduz eta beharrezko tresnak eta metodologiak berrituz.

ANDRAGORA Emakumeen Etxearen kudeaketak barne hartuko du adostutako jarduera agendaren exekuzioa eta emakumei zuzendutako aholkularitza juridikoa zein psikologikoa.

ENPRESA SAILA

ZERBITZU OROKORRAK

Eskualdeko enpresek hainbat behar eta interes ezberdin izan ditzakete. Ezaugarri antzekoak izan baditzakete ere, euren behar eta interesak ere anitzak dira zentzu askotan. Aholkularitza edo zerbitzu orokorreari dagokienez, Enpresa Saitetik behar hauei hainbat eratarik ematen diegu erantzuna. Lau arlo handi bereizi ditzakegu zentzu honetan. Dirulaguntza eta programa ezberdinen inguruko informazioa, Administrazioarekiko zubi-lana, langile beharren kudeaketa eta eskualdeko enpresen inguruko informazio eta saretzea.

Administrazio ezberdinen aldetik argitaratzen diren laguntza eta programa ezberdinen informazio zabala ematen da eskualdeko enpresa sare guztira. Normalean Eusko Jaurlaritzatik edo Gipuzkoako Foru Aldunditik argitaratuko diren laguntzekin ematen dugu zerbitzu hau. Beste alde batetik, enpresek egiten ditugun bisita edo interakzioetan edozein laguntzatan sarbidea izan dezaketela eta beraien onurarako izango dela identifikatzen badugu zuzeneko zerbitzu hori ematen diegu eta laguntza horri buruzko aholkularitza eskaintzen diegu.

Beste arlo bat Administrazioarekiko zubi-lana ere izan daiteke. Guk, garapen agentzia bezala, eskualdeko enpresekiko gertutasun rol hori jokatzeko dugu eta beraien kezka edo beharra edozein izanda ere, gurekin harremanetan jar daitezke gero guk bidera dezagun Administrazioaren beste edozein arlotara. “Leihatila bakar” zerbitzu hori eskaintzen diegu.

Bestalde, eskualdeko enpresek izan ditzaketen langile beharrei ere erantzuna ematen diegu. Enpresen aldetik gabezia edo hutsunea identifikatu eta aztertu ondoren behar hauek asetzen ditugu agentziako Enplegu departamentuarekin elkarlanean.

Azkenik, eskualdeko enpresa sareko informazio orokorra edukirik, beraien arteko harremanen sustapena ere gure helburuetako bat da. Horrela, interes osagarriak izan ditzaketen enpresak beraien artean harremanetan jartzeko ahalmena daukagu.

PROSPEKZIOA

Ezinbesteko lanketa da Enpresa Sailarentzat. Enpresekin etengabeko harremana eta interakzio zuzena mantendu eta sustatzea ezinbestekoa da eskualdeko industria sarearen egoera ezagutu eta haiek gure lanaren berri izateko. 2025an prospekzio lanak protagonismoa izango du Enpresa Sailean. Egungo egoera aldakorra da. Testuinguruak bultzatuta epe motzean behar ezberdinak suerta daitezke eta aldaketa hauen aurrean aurrera eraman nahi dituzten ekintzak eta sortu zaizkien behar berriak ezagutu behar ditugu. 2025an prospekzio lan horri jarraipena emango zaio eta enpresei gure bidez edo kanpo baliabideak aprobeztatuz izan ditzaketen aukeren berri emango zaie. Prospekzio eraginkorra aurrez aurre egiten dena dela kontuan dugu. Horrela, gure lehenetara enpresetara joan, bisita eta zuzenean haiekin interakzioa izatea izango da. Hala ere, enpresen behar eta lan egiteko eratarik moldatuko gara prospekzioa egiteko orduan.

Prospekzio zuzena 50 enpresa ingururi egingo zaie. Esan bezala, haien intereseko izan daitezkeen programa, laguntza edo ekimenen berri emango zaie eta haiekiko dugun erlazioa eraiki edo indartzeko aukera izango da. Enpresa askok ezagutzen gaituzte eta harreman hori indartzea izango da helburu. Beste askorekin oraindik ez dugu harremanik izan eta lanketa hau lehen kontaktu bezala erabiliko dugu aurrerantzean gertuko enpresa bilakatu dadin.

KOMUNIKAZIO DIGITALA

2025ean Enpresa Sailak komunikazio digitala lantzen jarraituko du. Horretarako, erregulariki newsletter digital bat argitaratuko da. Newsletter honetan agentziaren, enpresa sailaren, Lehiberrira atxikita dauden enpresen edo interes bereziko berrien inguruan hitz egingo da.

Horretaz gain, orain arte erabili ohi dituen komunikazio bide nagusiak jorratuko dira sailetik bien bitartean: enpresei zuzenean egiten zaizkien mailinak, webgunea bera eta sare sozialak. Azken hauek gero eta pisu handiagoa hartu behar dute. Azken finean, kanal hauetatik informazio elkartrukea eta interakzioa era zuzenago batean ematen da eta zerbitzu pertsonalizatuagoa lortzen da.

PROGRAMA PUBLIKOAK

Enpresa Saileko lehen aipaturako azken helburua kontutan hartuta, Administrazio Publikoko beste eragileek ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko edo Eusko Jaurlaritzako garapen ekonomikoko sailak kasu, beraiei dagozkien lurralde eremuetan helburu oso antzekoak bilatu ohi dituzte. Hau horrela izanda, erakunde hauek eskualdean garapen agentzien bitartez, programa desberdinak abian jarri eta sustatzen saiatzen dira; aurtengora begira, Eusko Jaurlaritzak SPRI eta Innobasqueren bitartez bostgarren urtez martxan jarriko duen Hazinnova programaren, Lanbide eta Innobasquerekin batera lehenengo aldiz belaunaldi aldaketaren inguruko programaren eta Aldundiak enpresen eraldaketa digitalean aurrera pausuak emateko helburuarekin jarritako programaren ordezkari izango gara



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Tolosaldean. Horretaz gain, Enplegu Sailaren bitartez erakunde desberdinetatik enpleguaren sorkuntzarako bideratutako programak ere eskaintzen ditugu, Enplegu Plana kasu.

ENPRESETAN ERALDAKETA DIGITALA GARATZEKO PROGRAMA

2021, 2022, 2023 eta 2024 urteetarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an hasi zen eta enpresekin lan egiteko ireki zigun bide horri eusteko prozesuari jarraipena eman dio. Horretarako, lanketa honen hurrengo fasea enpresen digitalizazio maila hobetzea izan da. Horrela, enpresen heldutasun digitala neurtu da eta eskualdeko 18 enpresatan proiektu ezberdinak garatu dira digitalizazio maila hori hobetzeko.

2025 urtean egin beharreko lanketa ildo horretatik abiatuko da. Proiektua eskualdeko hogeiei enpresa ezberdinekin hasiko dugu sentsibilizazio lan bat eginez. Azken finean, enpresa guztiak ez daude egoera edo garapen maila berdinean digitalizazio arloari dagokionez eta hauetariko batzuekin lehen fase honetan bakarrik arituko gara. Identifikazio eta zehaztapen faseak zazpina enpresekin egingo ditugu.

Horrela, enpresa multzo honekin euren egoeraren diagnosi bat egin eta bidaia orri bat burutuko zaie digitalizazio arloan eman beharreko pausuak definitu eta zehaztuz. Teknologia hauen txertatzea aurrera eramateko bideak ere aztertuko dira eta enpresari bide hori erraztuko dioten alternatibak identifikatuko dira. Prozesua amaitzean enpresa guztiak itxiera jardunaldi bat egingo dugu bakoitzak atera dituen emaitza, ikasketa eta ondorioak partekatzeko.

HAZINNOVA

Hazinnova programaren helburua enpresen gaitasuna bultzatzea da berrikuntza ez teknologikoaren eskutik, irtenbide ezberdinak eskainiz eta zerbitzu espezializatua emanez.

Horretarako, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak, 5 langile baino gehiagoko enpresei negozio prozesu zein produktu arloko berrikuntza mikro proiektuak txertatzeko aholkularitza eta bide-laguntza eskainiko du. Bertan, eskualde bakoitzeko Hazinnova agenteak definituko dira, enpresei, bide guztian zehar lagundu, zalantzak argitu eta edozein motako lan-karga gutxitzeko helburuarekin. Hori izango da gure egitekoa.

LAN MENTORING

Lehen aldiz, Lanbide eta Innobasquerekin elkarlanean enpresentzako euren negozioarako kritikoak diren zenbait lanpostutan belaunaldi erreleboa arrakastaz jorratzeko doako laguntza zerbitzu espezializatu bat kudeatuko dugu.

Zerbitzu honen bidez enpresek aholkularitza aditua jasoko dute belaunaldi aldaketa jorratzeko. Errelebo hau planifikatu eta garaiz lantzea ezinbestekoa da. Hurrengo urteetan egoera hau jasango duten enpresen kopurua handia izango da eta aurrez lanketa egiteak garrantzia berezia izan dezake.

Lan Mentoring zerbitzuarekin aurreikuspen, planifikazio eta lanketa bat eskaintzen da. Horrela, enpresak talentua eta ezagutza galtzea saihestu, gako izan daitezken lanpostuen jardunean jarraikortasun bat lagundu, langileen arteko garapen profesional eta motibazioa sustatu eta azken finean, enpresaren etorkizuna berma dezake.

BERRIKUNTZA PROFILAK

Hirugarren urtez, Innobasqueren bitartez enpresen berrikuntza maila eta hauek ekar ditzaketen hazkunde aukerak ezagutzeko tresna berri bat izango dugu. Horrela, tresna honen bitartez kasu zehatz bakoitzerako hobekuntza arloak, oztopoak, erronkak edo eremu interesgarriak identifikatuko dira. Horretarako, galdetegi bat eratu da. Helburuak, besteak beste, enpresaren egungo egoera ezagutu, berrikuntza maila zein den zehaztu eta egon daitezken aukerak mahai gainean jartzea izango dira. Galdetegi hau erantzun ondoren enpresak txosten pertsonalizatu bat jasoko du honen berrikuntzaren bidean gida moduan erabiltzeko. Izan ere, egoera zein den azaltzeaz gain, jarduketa eremuak zehazki azalduko dira. Gainera, lagungarri izan daitezken erakundeekin zuzeneko harremana sustatuko da eta ezarpen prozesuan laguntza eta babesa eskainiko dira.

ENPLEGU PLANA

Enplegu sailaren bitartez, erakunde desberdinetatik enpleguaren sorkuntzarako bideratutako proiektuek, pertsona hauek eskualdeko enpresetan kontratatuak izatea dute helburu. Honetarako, edota parte hartzaile desberdinei praktikak bilatzeko ekimenak bideratzen ditu sailak eskualdeko enpresetan. Zenbait kasutan aldiz, enpresaren eskaera mahai gainean jarriz, profil egokiak aurkitzeko lana bideratzen dio baita ere enplegu sailari.

PROIEKTU PROPIOAK

Enpresa Saitetik enpresei ekimen propioz sortutako proiektuak ere eskaintzen dizkiegu. Gure kabuz edo enpresek beraiek transmititutako behar konkretuen inguruko lanketa eta diseinu bat egin ondoren proiektu forma ematen diegun aukerak izan daitezke. Azken urteetan agroelikadura sektorerako, talentuaren kudeaketarako edo lidergo eredu ezberdinak enpresei bideratzeko proiektuak landu ditugu eskualdeko enpresa ezberdinekin. Normalean, proiektu hauek lankidetzat sustatzeko zeharkako helburua ere izaten dute. Aurtengoan barne ekintzailatza bezalako gaiak landuko ditugu.

LANAREN ZENTZUA

Enpresetan eraginkortasuna eta efizientzia altua izan dadin hainbat faktore eta aldagai kontuan izan behar dira. Aldagai hauen artean langilegoaren asebetetze maila altu bat lortzea eta enpresako parte diren guztien helburu eta norabidea partekatua izatea ezinbestekoa da. Bestela ondorioak enpresetan nabarmenak dira (absentismoa, bitarteko mandoen saturazioa, motibazio falta, pertsonak enpresan mantentzeko arazoak, malgutasun falta eta abar).

Kontu honi helduz, Enpresa sailatik Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean eskualdeko 2 enpresarekin lanketa hau burutuko dugu. Horrela eta gai hauek landuz, enpresako eraginkortasun eta efizientzia maila igo eta eskualdeko enpresa sare indartsuago bat lortzen saiatuko gara.

Horretarako, enpresek ibilbide ezberdinak izango dituzte euren beharren arabera. Kasuan kasuko diagnosi bat egin eta hausnarketa eta azterketa kritiko bat egingo da. Ondoren, Aldundiko programa ezberdinetara jotzeko aukera zabalduko da egindako diagnosi honetan oinarrituta. Enpresek laguntza lerro konkretu batzuetan baldintza hobeak izango dituzte aurretik gurekin proiektu honetan parte hartzeagatik.

BARNE EKINTZAILETASUNA

2025ean lehenengo aldiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, barne ekintzailatza prozesu bat abian jarriko dugu, enpresetan berrikuntza sustatzeko eta tokiko garapen ekonomikoa bultzatzeko. Programa honen helburua erakundeek euren ideiak produktu, zerbitzu edo negozio-eredu berritzaile bihurtzea da, enpresen lehiakortasuna eta hazkundera indartzen duen kultura ekintzaile bat sustatuz.

Proiektu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak eta lurraldeko Garapen Agentzia ezberdinak ko-sortze prozesu batean lanean arituko gara eta eskualdeko enpresa ezberdinekin lanketa piloto bat egingo



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

dugu. Lanketa honetan enpresen barruan arlo honetan garapen bat emateko beharrezkoak diren aldagai ezberdinak identifikatuko ditugu eta hauen inguruko azterketa burutuko da.

KOMUNITATE ENERGETIKOAK

Proiektu honek eskualde mailan energia komunitateak sortzea du helburu, ekoizpen eta kontsumo energetiko jasangarria bultzatzeko.

Eskualde mailan energia komunitateak sortzeak garrantzia berezia du. Energia kostuak minimizatu, kanpo iturriekiko dependentzia murriztu edo emisio jasangarri bat lortzeko eman beharreko pausua da. Horretaz gain, beti gure helburuen artean dagoen berrikuntza eta enpresa arteko elkarlana ere bultzatzen duen proiektu bat izanik, etorkizunean protagonismo berezia izango duen lan esparru bat bilakatuko da.

Hastapen fase batean egonik, helburu hau bilatzen lehenengo pausuak emango ditugu. Enpresen parte hartzea sustatu, bideragarritasuna aztertu, sor daitezken aukera eta onurak identifikatu eta hurrengo pausuak definitzeko ekingo diogu.

AGROELIKADURA POLOA

“Eskualdeak hitzarmena”-ren baitan agroelikadura sektoreko hainbat enpresekin lanketa abiatu dugu 2024an. Sektore honetan ikusten den potentziala aintzat hartuta, lankidetzaren dinamizazioa 2025ean eta bertan parte hartzen duten enpresen arteko osagarritasunak identifikatu eta bultzatu.

ENPRESEKIN LANKETA

Eskualdeko enpresekin arlo ezberdinetan lanketa jarraia egitea ezinbestekoa da. Horretarako agentziatik urtero proiektu bat garatzen da zentzu honetan. Enpresa sarea indartu eta lehiakorra izan dadin sailatik egin beharreko lanketak helburu amankomun batzuk izan ditu beti. Helburu amankomun horietako garrantzitsuenetakoa enpresen elkarren arteko lankidetzaren eta eskualdeko enpresen saretzea da lanketa espezifikoak egiteaz gain.

Azken urteetan helburu hau lortzeko asmoz eskualdeko enpresa talde adierazgarri batekin lanketa egin dugu. Esan bezala, euren arteko harremanak sustatu eta baita gurekiko duten gertutasun hori indartzeko ekimenak izan dira, beste helburuen artean. 2024an, adibidez, agroelikadura sektoreko 9 enpresekin elkarren arteko harremana errotu eta praktika onak partekatzeko proiektu bat garatu genuen.

Horrela, 2025an zehar ideia honekin lanean jarraituko dugu. Bai enpresekin bildu, hausnarketa prozesu bat aurrera eraman eta Sailaren ildo estrategikoak diseinatu, bai aurreko ediziotan identifikatu diren ekimen aukera interesgarriei jarraipena eman eta enpresentzako proiektu bilakatzen.

FORMAZIOA

Enpresa Sailaren lan garrantzitsuenetakoa bat formazioari begirakoa da. Azken urteetan hainbat eta hainbat ekintza egin dira honen inguruan eta lan ildo horrekin jarraitzea aurreikusten da. Horrela, 2025an formazioaren inguruan egingo diren ekimenak ondorengoak izango dira:

TOLOSALDEKO IKT ASTEA

Azken 16 urteotan, Informazio eta Komunikazio Teknologiak, enpresen lehiakortasunean izan dezaketen eraginaren inguruan sentsibilizatzeko, formazioa sesioak antolatu ditu sailak. Ekimen hau,

SPRI-Enpresa Digitalak ko-finantzatzeko du, eta bere sorreratik, publiko desberdinei zuzendutakoa da. Enpresa sailatik antolatzen dugun ekimen jendetsuena izan ohi da normalean. Izan ere, urtero 150 pertsona baino gehiago biltzen ditugu aste guztian zehar.

2025 urteari begira, formazio ekimen historiko honi 17. aldiz ekingo diogu.

LEHIBERRI ESKOLA

Etengabeko prestakuntza eta gaitasun eta ezagutza berriak etengabe berritzen joatea ikasteko prozesu bat da. Jakintza ezberdinak barneratzea eta formatzen joatea funtsezkoa da pertsonalki eta profesionalki hazten joateko, eta ezinbestekoa bizirauteko. Hori da gure helburua Lehiberri Eskolaren barruan eskaintzen ditugun kurtsoekin. Kontzeptu berriak barneratzea eta erabiltzen jakitea, negozio jarduera hobetuko duen aspektuak helarazi eta erakutsiz.

2025an ekimenarekin jarraituko dugu eta enpresaren arlo ezberdinak jorratuko dituzten hainbat ikastaro antolatuko ditugu lehenago aipatutako helburuarekin. Besteen artean, pertsonen kudeaketa, arlo finantzarioaren lanketa edo berrikuntza eremuan nola kudeatu ikasiko dugu. Arlo honetan ezinbestekoa da enpresen beharrei erantzun bat ematea.

Ikastaro hauek urtean zehar burutzen ditugu gai ezberdin hauek jorratuz hileroko maiztasunarekin. Formazio hauek 4 orduko iraupena izaten duten egun bakarreko aurrez aurreko formatuan ospatzen ditugu.

HIZKUNTZA IKASTAROAK

Enpresak ingurune dinamikoetan eta nazioarte mailan lan egiteko, aldaketetara egokitzeko eta profesionalki garatzeko gai diren giza kapitala bilatzen du. Enpresek globalizazioa dute ingurumari.

Hori dela eta, bide honetan, enpresei laguntzen jarraitu nahi dugunez, ingeles eta frantses ikastaroak eskaintzen ditugu, hitz jarria hobetzeko eta enpresa-jardueraren egunerokotasunean baliabideak eduki eta enpresa irudi egoki bat bermatzeko.

2025ean ikastaro hauek berriro zabalduko ditugu eta horretarako hizkuntza eskola espezializatuen laguntza eta irakasle kualifikatuen babesa izango dugu. Ordutegia, eguerdi aldean finkatzen dugu, izan ere, enpresek egun dituzten ordutegiengatik, aproposena iruditzen zaigu klaseetara etorri ahal izateko. Horrela, egin beharrekokoekin uztartzeko aukera izan dezaten.

Ikastaroak, 10 astetan zehar burutzen ditugu, astean behin Lehiberri Zentroan elkartuz eta saioek bi ordutako iraupena izaten dute. Orokorrean, harrera ona izaten dute. Hizkuntzen inguruko ezagutza bultzatzeaz gain, ekimen honek eskualdeko enpresen saretzea ere bilatzen du. Giro ezberdin batean beste mota batzuetako proiektuak ere sor daitezkeelako.

LANKIDETZA

Enpresa Saileko proiektu ezberdinek duten zeharkako helburu nagusia euren arteko lankidetzaren sustatzea da. Horrela, ekimen askori osagai hau ematen saiatzen gara. Beraz, gure proiektuak beste gai edo arloen inguruan zentratzen badira ere, eraldaketa digitala, formazioa, ekonomia zirkularra, e.a., lankidetzaren ardatza beti izango da helburu garrantzitsua. Izan ere, gaur egun enpresak lehiakor izateko ezinbestekoa den ardatz bat da eta hori sustatzeko sinesmen indartsua daukagu sailatik. Horregatik, enpresei Lehiberrira atxikitzeak aukera ematen diegu. Horrela, atxikitzen diren enpresek lankidetzarako eta elkar ezagutzeko aukera izateaz gain zerbitzu bereziak eta hobariak jasoko dituzte kuota sinboliko baten truke.

LEHIBERRI ATXIKITUAK



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Lehiberrira atxikitutako enpresa taldea gure jarduerarekin eta filosofiarekin bat egiten duten enpresek osatzen dute. Momentu hauetan 68 enpresa inguru daude Lehiberrira atxikita. Aurrerantzean ere dinamika horrekin jarraituko dugu. Enpresa hauei eskaintzen zaizkien aukeren artean proiektu eta programa ezberdinetan parte hartzeko lehentasuna, proiektu ezberdinetan hobariak, Lehiberri Zentroko azpiegituren erabilera hobariak edo lehen aipaturiko elkar ezagutza dinamiketan parte hartzeko aukera daude.

2025erako hazkunde hori kontsolidatu eta hobetu nahi dugu. Helburua 75 enpresetara iristea izango da eta horretarako gure ekimenek eta eskaintzak eskualdeko enpresentzako interesgarriak izan behar dute. Horretarako ekimen, elkarretaratze eta mahai ezberdinak planteatuko dira.

ATXIKITUEN ELKAR EZAGUTZA DINAMIKAK

Lehiberri foroak atxikituei eskaini diezaieken balio gehituko ekintzetako bat eskualdeko enpresen arteko ezagutza sustatzeko abian jartzen diren ekintzak dira. Aurreko urteetan egin zenaren ildotik jarraituta, enpresetako pertsona desberdinak batzeko antolatutako ekimenak antolatuko dira. Ekimen hauek eskaintzen dituzten aukeren inguruko asebetetze inguruan, enpresa atxikituak oso pozik agertu izan dira, beraz, aurtengoan ere ekimen honi jarraipena emango zaio atxikitu guztien arteko bilkura orokor batean.

LEHIBERRI FOROKO KONTSEILUA

Lehiberri Foroaren sorreran eta kontsolidazioan oso paper garrantzitsua izan zuen foroko kontseiluak. Eskualdeko hainbat eragile publiko-privatuz osatutako talde honen laguntzaz bideratu izan dira enpresa sailaren egitasmo asko. 2025ari begira kontseilua berriro aktibatuzeko helburua dauka enpresa sailak, talderako kiderik egokienak identifikatu, erakarri eta aholku organo moduan lanean ipintzeko.

EKINTZAILETZA SAILA

ENPRESAK SORTZEKO AHOLKULARITZA

Autoenplegu sailaren muina osatzen du enpresak sortzeko aholkularitza atalak. Zerbitzuak enpresa proiektu bat aurkezten duenari asmo hori aurrera eramateko behar duen laguntza guztia ematen dio tutoretza pertsonalizatuaren bidez. Ekintzailletza saileko teknikaria arduratzen da enpresa ideia, bideragarritasuna ahalbideratuko duten aldagai garrantzitsuenak, arriskuak, finantzaketa, galera irabazi kontuak eta abar aztertzeaz. Ideiaren balizko bideragarritasuna aurre ikusi ondoren, Negozio Plana egiten da eta enpresa abian jartzeko behar den finantzaketa bilatzera jotzen da. Enpresa jada abian jarri delarik, zerbitzuak jarraipena egiten du, enpresa bat eratzeko ezinbestean sortzen diren arazoak konpontzeko eta zalantzak argitzeko.

Lan ardatz honetan ondorengo egin beharrak aipa genitzake:

- Autoenplegu informazio orokorra eskaintzea
- Negozio ideien azterketa burutzea bideragarritasun planetan oinarritua.
- Banakako tutoretza enpresa plana garatzeko.
- Enpresa kudeaketa mailako prestakuntza eskaintzea.

- Finantzaketa lortzeko erraztasunak ahalbideratzea hitzarmen desberdinei esker.
- Diru laguntza desberdinen informazioa eta kudeaketa.
- Ekiteko espazioen kudeaketa.
- Autoenplegua lan ekimenez bultzatzea.

Pertsona Ekintzaileari arreta eta informazio zerbitzua

Enpresa ekimen berri bat martxan jartzeko asmoa duten ekintzaile potentzialen arreta edo eta ekintzailetza lan munduratzeko irtenbide bezala ikusten duten pertsonen eskaintako arreta. Enpresa proiektua garatzeko lehen urratsa.

Bideragarritasun Planen bitartez Enpresa Proiektuen Azterketa

Ekintzaileek aurkezten dituzten ideia negozioen analisia eta azterketa bideragarritasun planak lan metodologia bezala hartuta. Aztertzen diren arloak: ekintzailearen profila, iharduera, bezeroak, lehiakideak, hornitzaileak, sektorea, beharrezko inbertsioak, finantzaketa, gastuen analisia, dirusarrera aurre ikuspenak, AMIA matrizea, ea.

Oinarrizko Azterketa Ekonomiko Finantzarioak

Ekintzaile berriek aurkezten dituzten negozio ideien oinarrizko azterketa ekonomiko finantzarioak burutzen dira, ekintzaile beraiek ekartzen dituzten datuetan oinarrituta. Enpresa plana edo bideragarritasun azterketa burutu aurretik egiten den ariketa, batz besteko errentagarritasun langaren kalkulua egiteko.

Enpresa Berrien Sorrera

Ekiteko prozesua aurrera eramanez ondoren eta bideragarritasun azterketak edota azterketa ekonomiko finantzarioak egin ondoren, sortuko diren mikroenpresa kopuruaren aurre ikuspena.

EKITEKO ESPAZIOEN KUDEAKETA

Ekiteko Gune edo espazioak Tolosaldea Garatzenek zuzenean edo beste erakunde batzuekin dituen hitzarmenei esker, ekintzaile berriek eskura jartzen diren azpiegiturak dira. Espazio hauen helburu nagusiak enpresa berrien sorrera eta kokapena erraztea dira, lanpostu berrien sorrera ahalbideratzea, azpiegitura fisiko baten eskaintza, eta, azken finean, enpresaren lehiakortasun aukerak handiagotzea dira.

2025. urteari begira 3 espazioen kudeaketarekin aurrera jarraitzeko aurre ikuspena dago: Lehiberriko Enpresa Haztegia, Tolosako Emari Co-Working-a eta Tailsako Enpresa Haztegia.

Lehiberriko Enpresa Haztegiaren Kudeaketa

Jarduera honek 3 lan ildo nagusi ditu:

- a) Alde batetik, gaur egun haztegian kokatuta dauden enpresen jarraipena eta aholkularitza zerbitzua aurrera eramango da eta aldi berean hitzarmenen berritzean, erabilera araudiaren errebisioan, prozeduren balorazioan eta antzekoetan lan egingo da.
- b) Enpresa Haztegian kokatzeko aukera izan dezaketen enpresa proiektu berritzaileak identifikatu, aztertu eta zentroan bertan kokatzeko ahaleginak egin.
- c) Lehiberriko Enpresa Haztegiaren promozio lanak aurrera eramango dira, haztegiaren informazioa zabalduz eta bertan kokatuta dauden enprekin egiten lana aditzera emanez.

Eran berean, bertan kokatuta dauden enpresen bitartez (ikusgarritasuna emanez, elkarrizketak, esperientziak kontatuz, ...) ere haztegiaren proiektua sozializatuko da.

Emari Co-Working Gunea Dinamizatzen lagundu

Jarduera honek hiru lan ildo nagusi ditu:

- a) Tolosaldea Garatzeneko ekintzailetza sailak Emari Co-Working gunearen promozio lanak aurrera eramango ditu autoenplegu departamendura hurbiltzen diren ekintzaileen artean,



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

ekintzaileen datu basea erabiliz eta ekintzailetzarekin zerikusia duten eragile desberdinen artean.

- b) Emari Co-Working-ean kokatuta dauden ekintzaileei, beraien beharretara egokitutako aholkularitza zerbitzua eskainiko zaie.
- c) Emari Co-Working gunean kokatzeko asmoa agertzen duten ekintzaileei enpresa plana egiten lagunduko zaie eta eginda badute enpresa plana aztertu eta gainbegiratuko da, proiektuen azterketarako Tolosako Udalak eta Tolosaldea Garatzenek osatuta daukaten komisiara aurkeztu baino lehen.

Tolosaldea Garatzenek Tailsan duen enpresa haztegiaren kudeaketa

Lehiberriko Enpresa Haztegian 3 edo 5 urtez egon diren ekintzaileei kokapen berria ahalbideratzen zaie baldintza onuragarrietan Tailsako bulegoetan. Lehiberriko Tailsara igartzeko trantsizioa errazten zaie ekintzaileei bitartekaritza zerbitzua eskainiz. Horretarako, haztegian kokatzeko modukoak izan daitezkeen enpresa berritzaileak identifikatu eta erakartzeko lan egingo da.

EKINTZAILETASUNAREN SUSTAPENA

Ekintzailetasunaren sustapena, promozioa eta sentsibilizazioa aurrera eramatea da helburua burutzen diren ekintza desberdinen bidez. Orokorrean, formazio ikastaroak, autoenplegurako sentsibilizazio tailerrak, informazio saio orokorrak, hitzaldiak, jardunaldiak, topaketak eta antzekoak aurrera eramaten dira urtean zehar.

Ekintzailetasunaren Sustapena Ikastetxetan

Eskualdeko Lanbide Heziketa, Batxiler eta DBH4-ko ikastetxe desberdinetan lantzen dituzten ekintzailetza programetako ikasgaietan kolaborazio eskaintzen da gai desberdinei buruzko hitzaldiak emanez edota beraien enpresa martxan jarri duten ekintzaileen esperientziak lehen eskutik kontatuz.

2025. urtean zehar, eskualdeko ikastetxe desberdinetara bisita errondekinekin jarraituko da, Tolosaldea Garatzeneko ekintzailetasun saila eta ikastetxeen ekintzailetza sailtako harremanak era egonkor batean egituratze aldera.

Enpresa Kudeaketa Ikastaroak

Enpresa ekimen berri bat martxan jarri nahi duen pertsona orori zuzendutako 20 orduko ikastaroak dira. Enpresa kudeaketa erreminta desberdinak ezagutarazteko eta beraien enpresa kudeatu ahal izateko gaitasun teoriko – praktikoak lantzeko ikastaroak aurrera eramango dira.

Lehiberri Eskola

Kultura ekintzailea sustatu eta enpresa ekimen berriak identifikatu asmoz, sormen, sentsibilizazio eta dinamizazio tailer eta saio desberdinak antolatuko dira urtean zehar enpresa sailarekin elkar lanean.

Era berean, ekintzaileen interesekoak izaten diren gaiei buruzko jardunaldi saio laburrak antolatuko dira. Hitzaldiak urtean zehar zehazten joango diren arren landuko diren gaien artean: ideien sorkuntza, ekiteko gakoak, **enpresa eta autonomoentzako zerga-kudeaketa**, kudeaketa ekonomikoa, negozioen eskualdatzeak, betebeharrak fiskalak, gaitasun komertzialak, salmentak eta antzekoak izango dira.

EKINTZAILEENTZAT ZERBITZU

GEHIGARRIAK

Lan ardatz honetan, Garapen Agentziak ekintzaileen eskura jartzen dituen beste zerbitzu batzuen lanketa eta kudeaketan lan egiten da. Enpresa ekimen berriei ekiteko bidea errazteko ondorengo jarduerak aurrera eramango dira:

Lanbide Ekintzaile Bekak

- *Enpresa ideia garatzeko beka*: Lanbiderekin elkarlanean, 2 hilabetez ekintzaileak bere negozio ideia aztertu eta garatu ahal izateko beka bat eskainiko da. Sexu eta adinaren arabera bekaren zenbatekoa desberdina izango den arren, gutxienez 1.000 euroko beka bat izango du ekintzaileak. Bideragarritasun azterketa egiteko prozesuan diruz lagunduko dion ordainsaria izango da.

- *Enpresa abiarazteko beka*: Bideragarritasun azterketa eginga duten ekintzaileei eta negozio-ideia zehatz bat duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jar ditzaten bultzatzeko beka. Enpresa plana bukatu eta 3 hilabeteko epean enpresa martxan jartzeko beka izango da. Bekaren gutxiengo kopurua 1.500 eurokoa izango da.

Finantzaketa

Tolosaldea Garatzenek erakunde finantzario desberdinekin dituen hitzarmenetan lan egingo da, eskualdeko ekintzaileek erraztasunak izan ditzaten beraien enpresa ekimenak finantziatzerakoan. Mailegu biguinak lortzeaz gain, entitateek eskatzen dituzten bermeetan malgutasuna lortzeko bidean lan egingo da. Laboral Kutxa, Nafarroako Rural Kutxa eta La Caixa - Microbank erakundeekin ditu Garapen Agentziak hitzarmenak.

Aholkularitza Etxeekin Hitzarmenak

Eskualdeko aholkulari etxe desberdinekin sinatuta dauden akordioei esker, ekintzaile berriei aholkulari etxe hauen zerbitzuetan %50ko hobaria eskainiko zaie.

Hitzarmen honen baitan izango ditugun kolaboratzaileak: Asesoría Inmobiliaria Berazubi, Asesores Argitu, Asesoría Zabaleta, Bordonabe Aholkularitza, Igarri Asesores eta Aldama y Tapia.

LANKIDETZA TG-ko SAIL DESBERDINEKIN

Zeharkako Programak Landu

Tolosaldea Garatzeneko beste sailekin batera elkar lanean ekintzaitza gaia zeharka jorratzea eta ahal den neurrian proiektu edo programa amankomunak jorratzea.

Udal, enplegu, enpresa eta turismo sailekin sor daitezkeen kolaborazio eta lan ildo berriak identifikatu eta ekintzaitza txertatuko duten proiektuetan lan egin.

Enplegu Zentroa

Enplegu sailarekin batera, lanez aldatu nahi duten erabiltzaileentzako birkokatze ibilbide bat diseinatuko da; non ekintzaitasuna lan aldaketa horretarako aukera bat bezala landuko den. Talde nahiz bakarkako aholkularitza eskainiko da

Enplegu Programetan Ekintzaitza Txertatu oinarrizko informazio eta sentsibilizazio saioen bidez

2025. urtean zehar Elkarrekin Programako Kixki-Kaxka eta Hazilan Lorpen proiektuetako partaideei orientazio zerbitzu berezitua eskainiko zaie; autoenpleguaren bidez lan munduan txertatzeko aukerak aztertuz.

Honez gain, Enplegu saileko erabiltzaileen artean eta enplegu programa desberdinetan ekintzaitza sustatze aldera autoenpleguari buruzko oinarrizko informazio eguneratua eskaintzeko saio desberdinak aurrera eramango dira:



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

- Autoenplegua lan munduratzeko alternatiba.
- Ekiteko Diru laguntzak
- Enpresa Plana nola egin.

ENPLEGU AUKERA BERRIAK

Ekintzailletza Soziala

Ekitaldi honetan ekintzailletza sozialarekin zerikusia duten gaiak jorratzen jarraituko dugu, arlo sozialak eskaintzen dituen negozio aukera berriak aztertuz eta foro desberdinetan parte hartuz:

- Negozio aukera berrien identifikazioa
- Finantzaketa alternatiboa
- Ekintzailletza sozialean trebakuntza
- Ekonomia sozial eta solidarioan oinarrituriko proiektuak ezagutu izaera sozial nabarmena izango duen negozio-proiektu jasangarri bat garatzeko lehen urratsak emanez.

Ekintzailletza Migratzailea

Jatorri atzerritarra duten pertsona ekintzaileen kopurua urtez urte gehituz doanez, 2025. urtean tratamendu eta orientazio berezia eskainiko zaie beraien beharretara egokituz. Enplegu sailarekin elkarlanean burutuko zerbitzua.

BESTE BATZUK

Ekintzaile Foroetan Parte - Hartzea

Ekintzailletza gaiak jorratzen diren foro, bilgune eta bilera desberdinetan parte hartuko da ekintzailletasunarekin zerikusia duten gaiet buruzko hausnarketak egin, programa berriak proposatu eta finean ekintzailletasun arloan Garapen Agentziak presentzia izan dezan.

Ekintzailletza esperientziak ezagutu

Estatu mailan ekintzailletza arloan erakunde desberdinak aurrera eramaten ari diren proiektu, egitasmo, metodologia eta esperientzia desberdinak ezagutu asmoz, urtean zehar webinar eta bisita desberdinetan parte hartuko da.

ENPLEGU SAILA

ORIENTAZIOA

ORIENTAZIOA

Lanerako Prestakuntza hobetu edo lan bila dabilentzako informazio eta orientazio zerbitzua da.

Enplegu zerbitzuan lan eskatzailea edo orientazio eske etortzen den herritarrei beraien egoera hobetu dadin akonpainamendua ematen dugu.

Hasierako elkarrizketa bat egin ostean pertsona horren egoera hobetzeko estrategia eta pausuak emateko taldekako laguntza eta laguntza indibiduala eskaintzen da: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa, posta elektronikoaren bitartez eta Skype zerbitzua.

Edozein sektoreetan lan egin edo prestatu nahi duenari zerbitzua ematen zaio eta kolektibo guztiekin lan egiten dugu: Ikasleak, Ikasketa bukatu berriak, Lehenengo lana nahi dutenak, Lanez aldatu nahi dutenak, Luzaroan langabe daudenak, Bizitzan zehar gehiago prestatu nahi dutenak, Bazterkeria egoeran dauden kolektiboak,...

2025ean zehar ere, ondorengo ildoak landuko dira zerbitzuaren erabiltzaileekin.

- LANBIDEk eskaintzen dituen zerbitzuak.
- Gustuko okupazio eta lan irtenbideak.
- Prestakuntza programak.
- Enpleguak lortzeko beste modu batzuk, LANBIDEtik kanpora.
- Informazio iturriak eta baliabideak, lan eskatzailearen erreferentzia-eremuaren inguruan.
- Internet eta teknologia berriak, enplegua eta prestakuntza bilatzeko.
- Kemen handiagoa izatea lana bilatzerakoan eta enplegua eta/edo prestakuntza bilatzen zentratzea.
- Autonomia handiagoa izatea enpleguaren alorreko helburuei buruz erabakiak hartzeko, eta konfiantza handiagoa izatea erronka pertsonalak eta profesionalak lortzeko.
- Ondo zehaztuta izatea interes pertsonalak, lan egiteko moduko eremuak eta prestatzeko eta ikasteko aukerak.
- Gaitasun pertsonalak, profesionalak, lorpenak, baliabideak eta aurretik egindako bidea aintzat hartzen jakitea, eta hobeto deskribatzea.
- Enplegua bilatzeak dakartzan zailtasunak gainditu daitezkeela benetan sinestea, jakinik arrakasta bakoitzaren esku ere badagoela.

Plangintzaren bidez bideratutako lanketaren helburu nagusia erabiltzaileek hainbat trebetasun eta gaitasun bereganatzea izango da:

- Ahoz natural eta erraz mintzatzeko gaitasuna, hitzezko nahiz hitzik gabeko komunikazioa gaitasuna.
- Aurkezpen-gutunak eta Curriculum Vitae hobeto egin eta prestatu, eta lan-eskaera ere hobeto mantendu.
- Test psikoteknikoei, hautaketa-elkarrizketei eta talde-dinamikei aurre egiteko modua.
- Lana bilatzeko harreman pertsonalen sarea; eta enplegua nahiz prestakuntza bilatzeko estrategiak eta metodoak.
- Egoera berriei aurre egiteko gaitasuna; agindutako zereginetikiko erantzukizuna, eta zailtasunen aurrean konponbideak eta beste alternatibak aurkitzeko trebetasuna.
- Prestakuntza- eta enplegu-aukera berriei edota aldaketei egokitzeko daukadan gaitasuna.
- Egunean jartzeko gaitasuna, lanbidean edo beste lan-aukera batzuetan egun eskatzen denari erantzuteko. Ezagutza minimoak (adb.: hizkuntzak), eta prestakuntza-ikastaroetan hasi eta prestakuntza hori ondo baliatzeko trebetasun kulturalak.

ENPLEGU ZENTROA

Lanbiden izen emandako erabiltzaile guztientzako doako zerbitzu bat da. Lana bilatzea errazteko espazio fisikoa da. Horretarako hainbat baliabide eskaintzen dira: liburuak, 4 ordenagailu, telefona lan eskaintzetara deiak egiteko...

Eskaintako zerbitzuak:

- Zailtasunak argitu, informazioa eta aholkularitza pertsonala.
- Lan eskaintzei buruzko informazioa.
- Lan eskaintzetan eta prestakuntza ekintzetan inskripzioa.
- Korreo elektronikoan prestakuntza eta enpleguarekin zerikusia duten kontsultak.
- Selektzio prozesuen prestakuntza.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Bertan taldeka zein indibidualki ematen da zerbitzua eta hilean gutxienez 2 taldekako saio egiten ditugu. Aurten indar berezia jarriko dugu herritarrak enplegu zentroa erabil dezaten, teknologien erabilera atzean utzi dutenak asko baitira oraindik. Gaur egun lan eskaintzetan izenemateko edo informazioa lortzeko ezinbestekoa da informatikako ezagutza minimo bat izatea eta oraindik badira minimo horiek ere ez dituztenak. Horiek gure zentroko ohiko erabiltzaileak izatea lortzea da helburu nagusia.

LAN ESKAINTZEN KUDEAKETA

LAN ESKAINTZEN KUDEAKETA

Lan eskaintzak kudeatzen ditugu pertsonal beharra duten enpresa, erakunde edo norbanakoei zerbitzua emanaz. Lan eskaintza aztertu eta beharren arabera selekzio prozesuan esku hartzen dugu. Ondorengo egiten dugu:

- Lan eskaintzara egokitzen diren Curriculum vitae-ak bideratu.
- Selekzio prozesu desberdinak: Test psikoteknikoak, talde dinamikak, informatika frogak...
- Lan eskaintzetara izen eman duten hautagaien balorazioa.

Lan eskaintzak gestionatzeko orduan bi erraminta ditugu:

- 1.- Lanbideko zentro kolaboratzailea gara lan eskaintzetan. Beraz, Lanbidek duen aplikatiboa erabiltzen dugu lan eskaintzak kudeatzeko.
- 2.- Kolokazio eta birkokatze agentzia moduan lan eskaintzak kudeatzen ditugu.

Horretarako lan eskatzaileen curriculum-ez osatutako datu base propioa dugu.

Helburu nagusia eskualdean lan eskaintzak kudeatzerako garaian erreferenteak izatea da. Horretarako lan ildoak ondorengoak dira:

1. Enpresen, erakunde, norbanakoen...pertsonal beharrei erantzutea.
2. Eskualdeko enpresei eskualdeko lan bilatzaileekin kontaktuan jartzeko erraminta bihurtzea.
3. Lan merkatuan zer pertsonal behar dagoen identifikatzea.
4. Pertsonal beharrak identifikatu eta behar horiek Tolosaldea Garatzenetik nola erantzun daitezkeen aztertzea.
5. Enpresekin mantendutako kontaktuari esker Tolosaldea Garatzenetik enpresei ematen zaien eskaintza integrala zein den azaltzea.

2025 urtean lan poltsa berezituak sortzeko lanean jarraituko dugu, batez ere langileria aurkitzeko zailtasunak dauden lan eginkizunetan: etxeko lanetarako eta ostalaritzarako.

ENPLEGUNA: Eskualdeko enplegu topagunea

2025ean merkaturatzeko zailtasunak dituzten pertsonak enpresekin kontaktuan jartzeko helburuarekin bi parteak elkar ezagutuko diren bilgunea sustatuko dugu.

Egun bateko saioak izango dira eta gutxienez 2 egingo ditugu urtean zehar. Enpresek gure zerbitzutik pasa diren lan eskaintzaileak ezagutzeko aukera izango dute eta aldi berean lan eske dabilzanak enpresetako dinamikak eta pertsonak ezagutzeko aukera izango dute.

Eskualdeko enpresetara langabetuekin ere 3 bisita dinamizatuko ditugu interesa duten lan eskatzaileak enpresen barne funtzionamendua ezagutu dezaten.

ESKUALDEKO ENPLEGU PLANA

Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako Tolosaldea eskualdeari LANBIDEk diru laguntza ematen dio eta Tolosaldea Garatzenek gainerantzeko udalen izenean eskaera egiten du.

Tolosaldea Garatzenek Lanbideren aurrean egiten dituen eginkizunak ondorengoak dira:

1. Eskualdean diruz lagundutako kontratazio mota eta zenbatekoaren eskaeraren prestaketa.
2. Lan eskaintzen prospekzioa (Enpresa eta turismo departamentuarekin batera).
3. Lan eskaintzen kudeaketa.
4. Kontratazioen balorazioa eta onarpena.
5. Kontratazioak lanbideren aurrean aurkezteko bete beharreko baldintzen ziurtatzea eta espedienteen prestaketa. Horretarako enpresei eskatu beharreko dokumentazioaren kudeaketa administratiboa.
6. Kontratazioak indarrean dauden bitartean enpresei eta kontratatuei jarraipena.
7. Lanbideren aurrean aurkeztu beharreko justifikazioaren prestaketa eta aurkezpena.

ETXEKOLAN Programa

Etxeko lanetan eta zaintzan lan egin nahi duten eta egiten duten pertsonen gaitasunak hobetzeko; eta era berean, familiei eta langileei kontratazio prozesuan bitartekaritza eta lan baldintzei buruzko aholkularitza eskainiko dion egitasmoa da.

Lanerako Orientazioa eskaintzen diogu etxeko lanetan edo menpeko pertsonak zaintza lanetan aritu nahi duenari, kontratazioaren baldintzen inguruko informazioa, lan poltsan izen eman eta formakuntza jasotzeko aukerarekin (gaitasun ziurtagiriak, euskara, e.a.). Bestalde etxean lan egiteko norabait behar duen pertsona edo familiari doako Aholkularitza eta bitartekaritza eskaintzen diogu, hautaketa prozesuan lagunduz.

Gaur egun arlo honetan ia ezinbestekoa den ziurtagiri profesionalari buruzko informazioa zabalduko dugu bai lan bila dabiltzaneren artean bai familietan ere. Eta ahalik eta herritar gehien prestakuntza ekintza honetatik pasatzea da sustatuko duguna, horretarako informazioa eta Orientazioa eskainiz.

INKLUSIO ETA ENPLEGU MAHAIA- Tolosaldealab

GipuzkoaLab programaren esparruan, zehazki, Lurralde Garapeneko Laborategian, maila anitzeko gobernantza eredu bat eraikitzen ari da, eta haren bidez lurraldearen garapena sustatzen duten programak eta jarduketak bultzatzen dira.

Deialdia Etorkizuna Eraikiz ekimenaren barruan sartzen da, eta eskualde mailako gobernantza egiturak sortzera bideratuta dago, besteak beste, Lurralde Garapeneko Laborategian identifikatu eta adosten diren lan ildoak garatzeko. Sortutako sareak edo foroak izango lirateke lurraldeko egituren nodoak. Beraz, adostekoak dira lurralde eta eskualde mailako gobernantza espazio desberdinen loturak mantentzeko antolatu behar diren prozedura eta egiturak.

Proposatutako ereduaren diseinua

Egitura aldetik historikoki izan ditugun foroak kontutan edukita eskualdeko garapen ekonomikoan eta sozialean zeresana duten erakundeen elkarlanean oinarritu gara Tolosaldea Garatzenen, gizarte-agenteen, enpresen eta eskualdeko udallerrien artean adostasun maila handiena izanez. Helburua enplegu planeko foroan parte hartzen duten agenteen kopurua indartzea da, elkarlana eta adostasun maila areagotzeko.

2025erako erronka mahai hori hiru hilero elkartzeari izango da eta eskualdeko agente horien artean sustatutako proiektuak aurrera eramaten hasi gara. Hainbat entitateen artean elkarlana sortu da eta proiektu ezberdinak gauzatzen hasi gara Foru Aldundiaren laguntzarekin, konkretuki Elkarrekin Lanean proiektuaren bitartez. Beraz, 2025erako helburua proiektu horiek gauzatzeaz gain 2025erako proiektuak landu eta diru laguntzak ateraz gero bertara aurkeztuko ginateke TolosaldeaLAB espazioan proiektuan landuz.



ELKARREKIN LANEAN Programa

Helburu nagusia proiektuan parte hartzen duten langabetu guztien laneratzea bultzatu eta lortzea da, lan merkatuan barneratzea lortuz edo prestakuntza ekintzetara bideratuz (Prestakuntza arautua, ziurtagiri profesionala...). Horretarako laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonekin lan egingo da lehentasuna emakumezkoei emanez. Proiektuaren helburu zehatzak hauek dira:

- Tolosaldean gizarte bazterkeria arriskuan dauden langabeekin lanean ari diren entitateen arteko kolaborazioa sustatzea eta kolaborazio hori sistematizatzeko bideak jartzea. Lehenengo urtea proiektu pilotua izanik, hurrengo urteetan errepikatu daitekeen edo ez baloratuz.
- Tolosaldean gizarte bazterkeria arriskuan dauden langabetuak zeintzuk diren identifikatzea eta laneratzea lortzea edo enpresarekiko harremana izatea praktiken bitartez. (parte hartzaileen %75ak praktikak egin behar dituzte eta gutxienez horien 15a lan munduratzea ezinbestekoa izango da).
- Tolosaldean gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten entitateak proiektu honekin inplikatzeko.
- Gizarte bazterkerian dauden langabeei prestakuntza teknikoa, zeharkakoa eta laneratzeko orientazio eta informazioa eskaintzea.
- Gizarte bazterkerian dauden pertsonak praktiketan eskualdeko enpresetara eta erakundeetara bideratzea.
- Eskualdeko eta alboko eskualdetako enpresen, ikastetxe eta 3. sektoreko erakundeetako pertsonal beharretara egokitzea.
- Eskualdeko lan merkatuan honelako pertsonei lanerako lekua egitea.
- TolosaldeaLab mahaian, enplegarritasun lanetan dabilzan erakundeei formakuntza eta merkaturatzerako metodologia berritzaileak transmititzea.

2025erako laneratzeko zailtasunak dituztenei 3 ibilbidea eskainiko dizkiegu Foru Aldundiak emandako diru laguntzarekin eta TolosaldeaLab mahaian parte hartzen dugun erakundeen proposamenez. Ibilbide hauetan ziurtagiri profesionalak eskaintzeaz gain, zeharkako gaitasunak landuko dira eta ibilbide guztian orientazio indibiduala izango dute langabetuek.

1.- EGITENDEU

Laneratzeko ibilbide integrala lantzea da helburua bazterkeria-egoeran dauden eskualdeko lan-esperientzia industrialik ez duten emakume langabeekin eta, halakorik ezean, egoera berean dauden beste pertsona batzuekin. Helburua berriz kualifikatzea eta **industria-sektorerara bideratzea** da. Horretarako, prozesu osoan zehar laguntza emango da. 2025ean 15 pertsonei eskainiko zaie prestakuntza.

2.- LAPIKOARTEAN

Laneratzeko ibilbide integrala lantzea da helburua bazterkeria-egoeran dauden langabeekin batez ere zailtasun bereziak dituztenekin. **Sukaldaritzan prestatzea** eta laneratzea sustatzea da lortu nahi dena. Horretarako, prozesu osoan zehar laguntza emango da. 2025ean 15 pertsonei eskainiko zaie prestakuntza.

3.- KIXKI KAXKA

Laneratzeko ibilbide integrala lantzea da helburua bazterkeria-egoeran dauden langabeekin batez ere zailtasun bereziak dituztenekin. **Ile apaintzaile bezala prestatzea** eta laneratzea sustatzea da

lortu nahi dena. Horretarako, prozesu osoan zehar laguntza emango da. 2025ean 15 pertsoneri eskainiko zaie prestakuntza.

HAZILAN + (LORPEN)

Hazilan + pertsonen laneratzea eta enplegarritasuna hobetzeko ekintzen eragiketa oso bat da, kualifikazio-maila ertain-altua izan arren, lan-merkatuan sartzeko edo berriro sartzeko zailtasunak dituztenak, haien beharretara eta lanbide-profilera egokitutako laguntza-programa integral baten bidez. Parte-hartzaile bakoitzaren beharrei eta ezaugarriei erantzun nahi dien laguntza-zerbitzu bat da, haien enplegarritasun profesionaleko baldintzak hobetzeko, haien laneratzea errazteko eta lortzeko. Ildo horretan, Hazilan + proiektuaren elementu bereizleak honako hauek dira:

Lanbide-profil bakoitzetik abiatuta lan egitea, kualifikazio-maila ertain-altuekin abiatzen diren baina gaitasun pertsonalagoetan lan egitea eskatzen duten kolektibo horien ahalduntzea bilatuz. Horrela, parte-hartzaileen ahalduntzea bilatzen da, enplegua lortzeari dagokionez, CV prestatzearen, enpresekin elkarrizketak gainditzeko entrenamenduaren eta abarren bidez. Haien proaktibitatea eta hautagaitza indartu eta sustatu nahi dira.

Enpresek eskatzen dutena neurritik garatzea. Pertsonen gaitasunak enpresen beharrekin gurutzatu nahi dira, bi aldeek interesak bat etor daitezela.

Hazilan + orientazio-ekintzen sorta zabala eskaintzen du zeharkako gaitasunetan, gaikuntza teknikoan, enpresako praktikan, laguntzan, etab.

Jarduera honetan parte hartuko dutenak, aldeztatik esperientziarik ez duten gazteak, edo beren lanbide-profiletik kanpo esperientzia dutenak, egoera desberdinengatik langabezia geratu diren 45-50 urtetik gorakoak, lan-merkatuan berriro sartzen diren emakumeak eta abar dira.

Emakume gazteen edo berriro sartzen direnen parte-hartzeari emango zaio lehentasuna, datu guztiek erakusten baitute emakume horiek direla lan-munduan sartzeko zailtasun handienak dituztenak.

30 orduko mentorizazio pertsonalizatua eskainiko diogu parte hartzen duen pertsonari eta ekintzaren %40a Europar Batasunetik finantziatuko da Garapen, Euskadiko Garapen Agentzien Elkartearen bidez.

TURISMO SAILA

HELMUGA TURISTIKOAREN KUDEAKETA

Proiektuen kudeaketa jarraipena eta dinamizazioa

Tolosaldeko Turismo Jasangarriaren Plana garatzea izango da sail honen egiteko garrantzitsuenetakoa 2025ean Tolosaldeko udalekin koordinazioan. Horretaz gain, sektore pribatuko eragileekin dinamizazio lana burutuko da, Gastronomia eta Familia Turismoko klubetan atxikitutako enpresen jarraipena eginez eta baita Kode Etikoa parte-hartzen duten enpresena ere.

Gastronomia Turismoko klubaren batzar, kudeaketa mahai eta azpisektore mahaiak dinamizatzen jarraituko dugu 2025 urtean ere, parte-hartze aktiboa duen kluba baita. Familia Turismoko kideak aktibatze saiakerak egingo da, bereziki 2025 urtean, Asteasu, Alkiza, Hernialde, Larrault eta Amezetan garatuko diren proiektuen inguruan, sektore pribatuko eragileak ere inplikatzeko.

LEHIAKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA

Kode Etikoa



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Basquetourren bidez, Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa jarri zuen martxan, Garapen Jasangarriaren 17 Helburuak (GJH) betetzeko helburu nagusiarekin.

Enpresa eta turismo-helmugei zuzendutako proiektu integratzailea da.

Atxikitzen diren erakundeek Euskadiko Turismoaren Kode Etikoan ezarritako 8 printzipioak betetzeko konpromisoa hartzen dute. Printzipio horiek gobernantzaren, teknologien, berrikuntzaren, jasangarritasunaren eta irisgarritasunaren arloekin lotua daude, eta kode horri lotutako jarduketak inplementatuta gauzatzen dira.

Adierazlea: enpresa parte-hartzaile kopurua

Helburua 2025: 34 enpresa parte-hartzaile (2024ko azarora arte 30 parte-hartzaile izan ditugu).

ERAKARGARRITASUNA ETA ESPERIENTZIA TURISTIKOA

Tolosaldearen erakargarritasuna eta esperientzia turistikoa hobetzeko, turismo-produktuak sortu, abiarazi, sustatu eta merkaturatu nahi dira atal honetan. Turismo-eskaintza sendotu eta bereiztea, balio erantsi handiagoa emanez; eta turismo-fluxu berriak indartzea eta sortzea, kontsumo turistikoa urte guztian modu uniformearen banatzen lagundu eta turisten batez besteko egonaldia eta gastua handitzea izango da helburua. Ekimen pribatuaren parte-hartzea sustatuko da eta konponbide teknologikoak erabiliko dira lehentasunez, bisitari eta turismo-enpresen arteko interakzioa ahalbidetzeko.

GASTRONOMIA

Tolosa Gourmet kluba

Lankidetzeta publiko eta pribatuan oinarrituta, produktu turistikoa gastronomiko adierazgarriaren kluba. Lurraldearen turismo gastronomikoko jomuga gisa irudi bakarra emateko eta eskualdeko gizarte- eta ekonomia-alorreko garapenaren alde egin dezan, toki-ekonomia eta lurralde-oreka bultzatuz.

Helburua, Tolosaldeko kultura gastronomikoaren potentzial endogenoari lotutako produktu turistikoa gastronomikoa garatzea da, jomugaren elementu bereizle izan dadin, ekintza eta esperientzia berritzaile eta bitxiaren garapena sustatuz Tolosaldea jomuga gastronomiko gisa posizionatzearen alde egin dezan.

Tolosaldea jomuga gastronomiko gisa merkatuetan egotea bultzatzea, gastronomiak bultzatutako gero eta turista eta bidaiari gehiago erakartzea eta Tolosaldea beste arrazoi batzuegatik aukeratzeko duten publikoei osagai gastronomiko bikaina ematea.

2025an aurreikusten diren ekintzak honakoak dira:

- **Kaptazioa:** Amezketa mondejua eskaintzen duten ostalariak eta eskualdean erreferentzia onak dituzten herri ostatu eta jatetxeak.
- Turismo azokak: Aste Santuan, Bilbon ospatzen den **Basquefest** azokan parte hartzea. Informazio puntua, produktu salmenta eta tailer gastronomikoen.

- Sustapena: online/offline publizitatea, komertzializazio ekintzak eta produktu aurkezpenak EAEn
- Fam/Press Trip: Eskualdetik kanpoko Turismo sektoreko profesional taldeak artatzea, bai tour-operadoreak, bai prentsa espezializatu, turismo gida nahiz bestelakoak profesionalak, gure eskualdea ezagutzera emateko Basquetour eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.
- Basquetourrek egiten duen IRON txostenaren bitartez, bezeroek establezimenduetan duten esperientzia baloratzen da eta bertan agertzen diren intzidentzien kudeaketa egingo dugu.
- Euskadi Gastronomika turismo produktuan gure kideen eta eskualdeko gastronomia ekitaldi eta eskaintzen berri ematea, blogean artikulak idatziz
- Formazioa: Sommelier formazioa
- Tolosaldeko udalerrietan ekitaldia gastronomikoen antolaketa. Eskualdean, hainbat azoka ditugu produktuan oinarri dutenak eta haiekin elkarlanean, ostalariak inplikatu eta ekitaldi horiek jantzi, osatu eta erakargarriago bihurtzea da asmoa, eskualdearen posizionamendu gastronomikoan eragiteko asmoz.

Adierazlea: atxikitutako enpresa kopurua

Helburua 2025: 50 enpresa atxikitu (2024ko urte bukaera 45 enpresa atxikiturekin ixtea aurreikusten da).

NATURAREKIN LOTUTAKO TURISMOA

Tolosaldeko mendi ibilbideen mapa eguneratzea euskara-gaztelera bertsioan eta ingeles-frantses bertsioa ere argitaratzea.

Wikiloc kontua eguneratzea aldaketekin, deskribapenak eta irudiak osatuz.

Tolosaldeko Wikiloc kontua promozionatzea.

UTT Erronka ultra distantziako mendi lasterketarekin lankidetzat, eskualdearen sustapenerako. Distantzia honetako lasterketak ez dira hain herrikoiak. Eskualdeko 8 herritatik pasatuko da eta David Santos Madrildarrari omenaldia egingo diotenez, Madril eta Murtziako korrikalari talde baten etorrera bermatuta egongo dira. Lasterketa honen bidez, eskualdearen mendi ibilbideak ezagutaraziko dira eta sustapen ekintza bat adostea da asmoa.

FAMILIA TURISMOA

Topic, Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa, haurrentzako erakargarri erreferentziazkoa da Euskadi mailan. Larritzeko ibilbide irigarria, atsedenleku, parke eta ostalaritza zerbitzuak familientzako bereziki erakargarriak dira. Herri txikietako ostatuak, nekazaturismo eta landetxeak, segmentu honi begira lan egiteko eskaintza egokia dugula jaso zuen 2021ean garatu zen Tolosaldeko Marketin Planak.

Basquetour agentziak Familia Turismoari bideratutako produktu kluba jarri zuen martxan eta Tolosaldeko, gure eskaintza segmentu honi begira Euskadin erreferente izateko lana egiten dugu, atxikitzeak bideratuz eta horrela, Euskadik egiten dituen promozioetan eskualdearen presentzia bermatuz.

- Bereziki promozio ekintzak antolatzea da asmoa, helburuko publiko honetara bideratuta dauden hedabide jakinetan.
